

KANBOKO HERRI BILTZARRAREN

2022ko uztailaren 11ko

BILKURA AKTA LABURRA

Hor ziren: Christian Devèze, Auzapeza, Eliane Aizpuru, Jean-Noël Magis, Yolande Huguenard, Didier Irastorza, Marie Aristizabal, Robert Poulou, Christiane Hargain-Despéries, Vincent Goytino, ordeak, Véronique Cadepond-Larronde, Peio Etcheleku, Corinne Othatcegy, Nicole Amestoy, Jean-Jacques Lassus, Isabelle Ayerbe (19:20tik goiti), Jean-François Lacosta, Maud Gastigard, Roger Barbier, Bernadette Remeau, Sébastien Carre, Carmen Gonzalez, Argitxu Hiriart-Urruty, Nathalie Aïçaguerre, Amaia Beyrie, Alain Boscq, herri biltzarkideiak.

Ezin etorriak: Jean-Paul Eyherachar, Isabelle Ayerbe (19:20 arte), Philippe Bacardatz, Jean-Paul Alaman, Lilian Hirigoyen, herri kontseilariak.

Ahalordeak: Jean-Paul Eyherachar-ek Christian Devèze-ri, Isabelle Ayerbek Yolande Huguenard-i (19:20 arte), Philippe Bacardatzek Argitxu Hiriart-Urruty-ri, Jean-Paul Alaman-ek Nathalie Aïçaguerreri, Lilian Hirigoyenek Amaia Beyrie-ri.

Saioko idazkariaren izendapena.

Biltzarkideek aho batez, Corinne Othatcegy hautatu dute saioko idazkari izateko.

Herri biltzarkideen kopurura.....	29
Presente diren herri biltzarkideak	24
Ahalorde kopurua.....	5
Hor ez direnak.....	5

– Solasgaiak:

42– Errepira bideko lur sail baten eskuratzea eta eremu publikoan txertatzea eta sailkatzea – Inkesta publikoaren abiatzea.	2
43 – Ursuia etorbideko lur sail baten eskuratzea.	2
44 – Grancher profesorearen etorbideko eskuratzeen erregularizazioa eta eremu publikoan txertatzea.	3
45 – Ursuia etorbideko Bru etxeko bi apartamenduren eskuratzea.	3
46 – SDEPA: estatutuen eguneratzea.	5
47 – SDEPA: hornidura sareko horma-kutxentzako edo banakako konexioentzako hitzarmena.	5
48 – SDEPA: lurpeko hornidura sarearentzako hitzarmena.	6
49 – Herriko ordezkari baten izendapena Ste Elisabeth zahar egoitzaren administrazio kontseilurako.	6
50– L’Aiglon zinema: Zerbitzu Publikoaren Delegazioa (ZPD/DSP).	7
51– Gurutze Gorriaren bertako ordezkariaren lokal baten eskura ezartzeko hitzarmena.....	7
52 – Usotegien kontzesioak.	8
53 – AGAZ: Jantegi elkartearekiko biko hitzarmena eskola jantegiko lokalen erabiltzeko.....	8
54– AGAZ: Jantegi elkartearekin hitzarmena Haurtzaro Gazteria eta Hezkuntza zerbitzuari apairuen hornitzeko.	9
55 – AGAZ: Kanboko AGAZera jiten diren Kanbotik kanpoko haurrentzako finantzazio hitzarmenari emendakina.	10

56 – AGAZ: Kanboko AGAZera jiten diren Kanbotik kanpoko haurrentzako finantzazio hitzarmena.	10
57 – AGAZ: nerabeentzako 2022ko uztaileko oporren prezioak.	10
58 – Biztanleriaren errolatzea: herriko koordinatzaile baten izendapena.	12
59 – Hatu merkatua: araudiaren eguneratzea.	12
60– Txakurrak XBHAS: estatutuen eguneratzea.	12
61 – Langileria: enplegu sortzea.	13
62 – Langileria: langile bat Euskal Elkargoaren esku ezartzeko hitzarmena.	13

– Iragan hiru saioetako akten onespina.

2022ko otsailaren 28, martxoaren 28 eta apirilaren 12ko saioei buruzko oharrik izan ez denez eta nehork ez duenez hitza eskatzen, bozkari ekin zaio eta hiru aktak aho batez onartuak izan dira.

42– Errepira bideko lur sail baten eskuratzea eta eremu publikoan txertatzea eta sailkatzea – Inkesta publikoaren abiatzea.

Magis jaunak Herri Biltzarrari azaldu dio Behereko Plazan jabe den SAINT ESTEBEN andereak Errepira bidean etxe baten eraikitze baimena eskuratu duela. Bide horren zabaltzeko, bere lur sailetik 30 m² erostea proposatu diogu eta herriak lanak egitea, 3 800 €rentzat:

- 1,30 m gorako harresi baten eraikitzea bidearen luzeran,
- xeilarentzako zutoinen ezartzea,
- bi platanondoren moztea eta erroak kentzea.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- SAINT ESTEBEN anderearena den BC 242 lur sailaren 30m² erostea eta 3 800 €ko lanak egiteari buruzko erabakia hartzea
- Lur zati hori eremu publikora pasatzeko inkesta publikoaren abiaraztea onartzea,
- Herriak gastuak bere gain har ditzala onartzea,
- Auzapezari baimena ematea eroste horretarako behar diren izapide guztien egiteko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

43 – Ursuia etorbideko lur sail baten eskuratzea.

Magis jaunak Herri Biltzarrari azaldu dio BIDABE Pierre jauna ados dela herriari bere BP 196 lur saila, gutxi gora behera 419 m²-koa euro sinbolikoaren truke uzteko.

Lur saila Ursuia etorbidean dago, eta horri esker herriak auzoaren segurtasunerako suhiltzaileentzako ur-poltsa bat ezartzen ahalko du.

Herri Biltzarrari eskatu dio horretaz erabakitzea, jakinez gastu guztiak herriaren gain izanen direla.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- BIDABE Pierre jaunaren 419 m²ko BP 196 lur saila euro sinbolikoaren truke erostea,

- Auzapezari baimena ematea eroste horretarako behar diren izapide guztien egiteko.

Aiçaguerre andereak galdetu nork duen ur-poltsaren mantenua egin behar.

Magis jaunak herriari dagokiola.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

44 – Grancher profesorearen etorbideko eskuratzeen erregularizazioa eta eremu publikoan txertatzea.

Magis jaunak oroitarazi du, orain zenbait urte herriak errepide eta bide obrak egin zituela Grancher Profesorearen etorbidean, bertako biztanleen onespenearekin, espaloien baten egiteko asmoarekin.

Alabaina, herriak lur sail horiek eskuratu dituela egiaztatzen duten notario agiriak ez dira eginak izan. Ondorioz, Herri Biltzarrari egora horren erregularizatzea proposatu dio.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- Errepide eta bide obren egiteko orain zenbait urte euro sinbolikoaren truke eskuratu zituen lur sailen egoera erregularizatzea eta horiek eremu publikora pasatzea. Honakoak dira eskuratu ziren eta erregularizatu behar diren lur saila: Grancher Profesorearen etorbideko AT 1 lur saila, 1 391 m²koa, Anne-Marie OILLARBURU andereak ordezkatzeko duen Sarl URSUYA sozietatearena zena,
- Auzapezari baimena ematea ekintza horren egiteko eta eremu publikora pasatzeko behar diren izapideen egiteko, eta bereziki herriko bideen sailkapen taula eguneratzeko.

Etorbide horri dagokionez, Hiriart-Urruty andereak ohartarazi du ordokiko baranda martxotik eroria dela.

Magis jaunak ihardetsi dio lanak egin artean "baliroad" bat ezarria izan dela.

Hiriart-Urruty andereak zehaztu du baranda hainbat lekutan pitzatua dela eta herritarrentzako arriskutsua dela.

Magis jaunak hesiak ezarriko dituztela pertsonak bertara hurbil ez daitezen.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua

45 – Ursuia etorbideko Bru etxeko bi apartamenturen eskuratzea.

Auzapezak adierazi du eskuratze hori Herriak "Beaulieu" jabegoa eskuratzeko ToLFEP-ek abiatu urraspidean bete-betean kokatzen dela, herri biltzarkideei igorri zaien azalpen ohar sintetikoan ikus daitekeen bezala.

2021eko irailaren 29an Herriak eta ToLFEP-ak izenpetu lankidetzaren hitzarmenak zehazten zuen "Bru" etxean eskuratu diren T3 motako bi apartamentuak ez zirela ToLFEP-aren eskuhartzearen kokatuko. Beraz, herriarekin adosturik, ToLFEP-ak segidan herriaren eskura ezarri zituen.

Auzapezak Herri Biltzarrari proposatu dio "Bru" etxeko bi apartamentu horiek ToLFEPari erostea 250 800 €ren truke, jakinez batean jendea bizi dela eta bestea larrialdi etxebizitza izanen dela lan batzuk egin-eta.

Hiriart-Urruty andereak apartamentuetako bat okupatua dela baieztatzea galdegin du.

Auzapezak baietz.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du "Bru" etxeak 4 apartamentu dituela. Behereko bietan jendea bizi dela, eta estaiko bietan, herriak eskuratu dituenak, gaur egun nehor ez dela bizi. Apartamentuetako bat berrantolatu behar da, eta besteak obra handiagoak behar ditu.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du noiz hasiko diren lanak.

Auzapezak erantzun dio obrak egin aitzin erosketa izenpetu behar dela

Magis jaunak zehaztu du lanen jakinarazteko afitxatzea egiten ari direla.

Ayerbe anderea gelan sartu da.

ToLFEP-aren esku den eremu guzia dela-eta, Hiriart-Urruty andereak hainbat galdera ditu Beaulieu-ko suteaz eta jabego horren beste zatien eskuratzeko datei buruz.

Lehen puntuari dagokionez, Auzapezak zehaztu du saio bukaeran aipatuko duela, eta bigarrenari dagokionez, gaur egun ez duela arraposturik ematen ahal. Herrirako sartze horren plano orokor bat aztertu behar da, herriarentzat edo biztanleentzat interesgarri izan daitezkeen higiezinetan lehentasuna eman. Bru etxeaz aparte, seguruenik jokoan izanen den bigarren higiezina La Lorraine etxea izanen da, zeren eta Kanboko hainbat osasun egiturek adierazi baitute farmazia amankomuna bertan ezartzeko interesa dutela.

Aïçaguerre andereak galdetu du zertan den biribilgunearen gaia.

Auzapezak ihardetsi dio momentuz txostena Pirinio Atlantikoetako Departamenduko zerbitzuen eskuetan dela, zeinek lehen seihilekoan zerbait erran behar zuten, baina oraingoz deus ez dutela eman.

Hiriart-Urruty andereak ulertu du Auzapezak saio bukaeran aipatuko duela Beaulieu-ko sutea, baina iruditzen zaio Beaulieu eremuaren gaia oso azaletik aipatua dela. Galdetu du ea gehiengoko taldeak eremu horretan proiekturik ba ote duen? Ea oposizioko taldearen iritzia eskatuko duten?Ea biztanleen iritzia hartuko duten?

Auzapezak erantzun dio eremu horretako proiektu nagusia Beaulieu zentroarena dela, baina zorigaitzez, suteak txosten horren aitzinatzea oztopatuko duela. Petit Franclet eraikinari dagokionez, eraikina THP izenpetua denez bere sailkapena aldatu beharko da ezein programazio aurreikusi baino lehen. Baina herriaren proiektuak ez direla bi higiezin horietara mugatzen. Jadanik errana izan den bezala, xedea da Hazparnetik Kanborako sartzearen antolamendua lantzea.

Hiriart-Urruty andereak espero du bere hautetsi taldea gogoetara deitua izanen dela.

Auzapezak ihardetsi dio beste gogoeta batzuk izan direla, bereziki Itsasutik Kanborako sartzeari buruz. Ohartu da funtsezko desadostasunak badituztela eta zaila izanen dela ikuspegi amankomuna atzematea. Ondorioz, lehenik gogoeta bere ikuspegia partekatzen dutenekin egiten du eta ondotik Herri Biltzar osoari proposatuko dizkio.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

46 – SDEPA: estatutuen eguneratzea.

Goytino jaunak biltzarkideei jakinarazi die, 2022ko apirilaren 9ko erabakiz, Pirinio Atlantikoetako Energia Sindikatuko Batzorde Sindikalak bere estatutuen moldatzea onartu zuela, honako bi puntuak aldatuz:

1 – Sindikatuaren izen aldaketa:

Xedea da Frantziar estatuko Energia Sindikatu guztientzako izen eta logo amankomuna ezartzea. Frantziako Energia Sindikatuen Federazioak 2015ean estatu mailan ikusgarritasuna hobetzeko abiatu zuen ideia hau, marka bakarra orokortuz. Horregatik, azken hiru urteotan, eta marka berria barneratzen hasteko, SDEPA-k bere logoa eta "TERRITOIRE D'ENERGIE PYRENEES-ATLANTIQUES"-en logoa elkarrekin ematen ditu bere komunikazio euskarri guztietan. Estatutuen aldaketarekin izen aldaketa behin betiko onartua izanen da.

2 – Eskumenen garatzea eta Sindikatuaren izate juridikoaren aldatzea:

SDEPA-ren eskuhartze esparruak etengabe aldatzen direnez, ezinbestekoa da elementu hori estatutuetan txertatzea:

- sindikatu mistoa da, herriak eta herri elkargoak biltzen dituen,
- lurraldeko energia sare alternatiboak sortzeko aukera, hala nola hotz sareak,
- argiteria publikoaren ustiatzaile misioa,
- hidrogenoaren erabileren garapena edo ibilgailu elektrikoaren eskema zuzentzaileen diseinua.

Gai guzti hauek SDEPAren estatutuen egokitzapena behartzen dute, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko herriei zerbitzu egokitua eskaintzeko.

Oroitarazi du estatutuen aldaketa indarrean sartuko dela soilik SDEPAren herrien gehiengo kualifikatuak baiezkota emana izanen duenean hiru hilabeteko epean, jakinez arraposturik eza baiezkotzat hartuko dela.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

47 – SDEPA: hornidura sareko horma-kutxentzako edo banakako konexioentzako hitzarmena.

Goytino jaunak oroitarazi du herriak SDEPArekin hitzarmena egin nahi izan duela Behereko Plazako eskolaren karrikan elektrizitate horma-kutxa baten ezartzeko eta airetiko konexioa berriz egiteko.

Eskola karrikako «Behereko Plaza» P10 postutik jalgitzen den tentsio baxuko sarea lurperatzean datza proiektuak. Horretarako, BC122 lur sailean horma-kutxa bat ezarri beharko da konexioa egiteko. Gainera, France Télécom-en kablea ere lurpetik pasarazteko baliatuko dira lan horiek. Eta bide batez airetiko linea kenduko da.

Zerbitzu Teknikoetako Zuzendariak zehaztu du lan horiek sareen lurperatzeko lehen urratsa baizik ez direla. SDEPAk jabe bakoitzari galdetuko dio ea kableak lurperatu nahi dituen. Arrapostuen arabera, proiektuaren balorapena egingen da eta Herri Biltzarrak lurperatze hitzarmenari buruzko erabakia hartu beharko du.

Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea SDEPArekin hitzarmen horren izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

48 – SDEPA: lurpeko hornidura sarearentzako hitzarmena.

Barbier jaunak oroitarazi du herriak SDEPAri eskatu diola Makeako bideko tentsio baxuko sareen lurperatzeaz arduratzea.

Proiektuaren xedea da Makeako bidean den "Bidegaina" P78 postutik jalgitzen den tentsio baxuko sarea lurperatzea. Horretarako, BP 67 lur sailean kablea lurpetik pasarazi beharko da. Gainera, France Télécom-en kablea ere lurpetik pasarazteko baliatuko dira lan horiek. Eta bide batez airetiko linea kenduko da.

Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea SDEPArekin hitzarmen horren izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

49 – Herriko ordezkari baten izendatzea Sta Elixabet zahar egoitzaren administrazio kontseilurako.

Auzapezak oroitarazi du 2020ko ekainaren 29ko Herri Biltzarrak Corinne OTHATCEGUY anderea izendatu zuela Santa Elixabet zahar egoitzako Egitura Kontseiluan herria ordezkatzeko.

2022ko ekainaren 27an iragan den “Ste Elisabeth-Andaula” elkartearen administrazio kontseiluak Corinne OTHATCEGUY izendatu zuen instantzia horretako kide bezala.

Ondorioz, Santa Elixabet egoitzako egitura kontseilurako ordezkari berri bat izendatu behar dugu.

Gehiengoko taldearen izenean Auzapezak Eliane AIZPURU proposatu du eta oposizioko taldeari galdetu dio hautagairik aurkeztu nahi duen.

Beste hautagaitzarik ezean, Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

50– “L’Aiglon” zinema: Zerbitzu Publikoaren Delegazioa (ZPD/DSP).

Barbier jaunak oroitarazi du 2013ko urtarrilaren 1etik Marie-Hélène DOILLET-ek duela herriko «L’Aiglon» zinema gelaren kudeaketa, zerbitzu publikoko delegazioan. Hitzarmena bost urterako luzatua izan zen 2017ko azaroaren 27ko erabakiz. Honela, 2022ko abenduaren 31an bukatuko da hitzarmena.

Zerbitzu horren jarraikortasuna bermatzeko, zerbitzu publikoko delegazioarentzako deialdia plazaratu behar da.

Ondorioz, bost urterako zerbitzu publikoko delegazioa esleituko zaion hautagaia izendatzeko deialdia plazaratu baino lehen, Herri Biltzarrak zerbitzu publikoko delegazioa onetsi behar du.

Barbier jaunak oraingo kudeatzaileak ematen dituen zerbitzuen ezaugarri nagusiak eman ditu eta zerbitzu publikoko delegazio mota desberdinak ere azaldu ditu (kontzesioa, errentamendua eta sozietate publiko interesduna). Herriak errentamenduzko zerbitzu publikoko delegazioa aurreikusi zuen L’Aiglon zinemaren kudeatzeko, ustiatzeko eta mantentzeko, hori izanik Zerbitzu Publikoko Delegazio modurik egokiena horrelako zerbitzu publiko batentzat.

Kontuan izanik, biltzarkideei igorri zaien azalpen ohar sintetikoaren elementuak, bereziki aurreikusten den zerbitzu publikoko delegazioaren ezaugarri nagusiak, zerbitzu publikoko delegazioarentzako deialdi baldintzak, Zerbitzu Publikoko Delegazioaren txostena eta 2023tik 2027rako errentamendu motako Zerbitzu Publikoko Delegazio hitzarmen proiektua, honako erabakiaren xedea da Herri Biltzarraren onespena ukatea honakoentzat:

- L’Aiglon zinemarentzako kudeaketarentzako Zerbitzu Publikoko Delegazioa emateko deialdia,
- Zerbitzu Publikoko Delegazioaren ezaugarri nagusiak aurkezten dituen txostena,
- Auzapezari baimena ematea, izapide guztien abiatzeko, eta Zerbitzu Publikoko Delegazio horrentzat hautagai diren eragile ekonomikoak lehian ezartzeko deialdia plazaratzeko eta orohar horretarako erabaki guztien hartzeko.

Aïçaguerre andereak galdetu dio zer aldatzen den oraingo kudeaketa moduaren ondoan.

Auzapezak ihardetsi dio deus ez dela aldatzen. Gaur egungo delegazioa 2022ko abenduaren 31ean bukatzen da eta Doillet andereak kudeaketa beste bati utziko lioke baldin eta kudeatzaile berriak bera kontratatuko badu langile bezala.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea Doillet anderea orain arte langilea zenez, enplegatua.

Zerbitzuen Zuzendari Nagusiak erantzun dio Doillet anderea hautagai dela Zerbitzu Publikoko Delegazio berriarentzat, eta horretarako:

- herriak 9 000 €ko zerbitzu eskaintza sari bat ematen diola kudeaketa egiten duen sozietateari,
- kudeatzaileak herriari bere irabazien ehuneko bat ematen diola.

Deialdi prozeduran, bi elementu horiek aztertuko dira hautagai bakoitzarentzat.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

51– Gurutze Gorriaren bertako ordezkariak lokal baten eskura ezartzeko hitzarmena.

Auzapezak Herri Biltzarrari oroitarazi dio herria Jendarmeriaren karrika itsuan den lokal baten jabe dela, lokal hori Gurutze Gorriaren esku ezarri nahi duela honek bere jarduerak burutu ditzan, besteak beste publikoaren harrera, elikagaien biltegiatzea eta banaketa bi hilabeteko maiztasunarekin.

Lokal horren erabiltzeko, hitzarmen bat izenpetuko dugu hartzaileak segurtasun, segurantz, erabilpen eta mantenu arloetan izanen dituen betebeharrekin, eta menturaz eskura ezarriko zaizkion altzariak ere zehaztuko ditu. Lekuaren egoera-akta egina izanen da.

Lokala urririk utziko zaio Gurutze Gorriari, eta fluidoak ere (ura eta elektrizitatea) herriaren gain izanen dira. Erabiltzaileak 500 €ko gordailua ordainduko dio herriari.

Herri Biltzarrari hitzarmena onartzea proposatu dio eta Auzapezari baimena ematea hitzarmen horren izenpetzeko.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du Gurutze Gorriaren lehengo lokala zer bilakatu den?

Auzapezak erantzun dio lehengo lokala orotariko bilgune gisa erabiliko dela eta ez zaizkiola Latsarria elkartearen eskaera errepikatuei baikorki erantzunen. Zehaztu du Akitania Berriko Kontseiluko arduradun batekin harremanetan dela horretarako.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

52 – Usategien kontzesioak.

Goytino jaunak oroitarazi du 2016ko ekainaren 6ko erabakiz, Herri Biltzarrak usategien kontzesioak bost urterako honela eraberritu zituela, gainera bide bazterreko herriko oihanean:

- Rocher CHAPELET jaunari: A206 lur saileko usategia,
- René HARAN eta Claude MONGABOURE jaunei: A173 lur saileko usategia.

Kontzesio hauek 2021eko ekainaren 30ean bukatu ziren, baina ezin izan genituen berritu ONF-ko zerbitzuek ez baitzizkiguten dokumentuak helarazi.

Onuradunei galdegin diegu kontzesioa berritu nahi zuten.

Claude MONGABOURE jaunak ez du bere kontzesioa berritu nahi izan, eta René HARAN jaunak SAINT JEAN jaunarekin batera A2065 lur sailean duen kontzesioa eraberritu nahi duela adierazi digu. Eskaerak ONF eta Ehiztarien Elkarteko Presidenteari igorri dizkiogu eta biek baiezkua eman dute.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- kontzesioaren urtesaria finkatzea. Proposatu du urteko 60 €-tan uztea usategiaren kontzesioa,
- René HARAN eta Christian SAINT JEAN jaunen kontzesioa bost urterako luzatzea 2022ko uztailaren 1etik goiti,
- Auzapezari baimena ematea horretarako dokumentu oro izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

53 – AGAZ: Jantegi elkartearikiko biko hitzarmena eskola jantegiko lokalen erabiltzeko.

Aristizabal andereak, eskola gaietarako orde gisa, adierazi du Jantegi elkartearekin hitzarmen baten egiteko xedea badela, zeinari galdegin zaion bere lokala eta materiala aisialdi zentroaren eskura ezartzea, 2022ko uztailaren 11tik aurrilaren 12ra, honako baldintzetan:

- astelehenetik ostiralerako bazkariantzat, 11:00 eta 15:00 artean, bazkarien emateko eta garbiketa egiteko:
 - jangela, baxeren egiteko aska eta sarrera pasabidea,
 - ikasleentzako komunak,
 - mahai gaineko baxerak eta sukaldeko tresnak, baita etxe tresna elektrikoak, eta garbitzeko produktuak, bazkariak emateko eta gero garbiketen egiteko.
- gehienez 130 pertsona sartuko dira,
- aisialdi zentroko zuzendariak lekuaren egoera-akta egingen du lekua hartzean eta uztean,
- Herriak sari bat ordainduko dio Jantegi elkarteari honek egin fakturaren arabera, zeinean sartuko diren besteak beste ura, gasa, elektrizitatea, berogailua, material txikia eta garbiketarakoak.

Herri Biltzarrari proposatu dio:

- Jantegi elkartearekiko biko hitzarmena onartzea, eskola jantegiko lokalak aisialdi guneko haurrek erabil ditzaten,
- Auzapezari baimena ematea hitzarmena izenpe dezan.

Hiriart-Urruty anderearen aburuz, aisialdi gunea biziki goizik hesten da. Iruditzen zaio, lehen, aisialdi gunearen heste data berantago zela.

Aristizabal andereak erantzun dio agorrilaren 12a eta gero, bi aste gelditzen direla, eta horiek eskoletako garbiketa handien egiteko baliatzen direla, ikasturtea hasi aitzin. Zehaztu du ere langileek oporrak hartu behar dituztela, jakinez gainera langile horiek urte osoan zehar lan egiten dutela AGAZean. Langile guziek bezala urtean bost aste opor behar dituzte, honela banatuak direnak: Eguberri bi aste, agorrilean bi aste eta beste aste bat nahi duten bezala hartzeko.

Aiçaguerre andereak adierazi du agorrilaren 12an hestearekin guraso anitz zailtasunetan gelditzen direla, lan egiten baitute, eta gehitu du inguruetako aisialdi gunek zabalik egoten direla gutxienez agorrilaren 25a arte.

Aristizabal andereak zehaztu du beste herrietako aisialdi gunek menturaz ez dutela urte osoan zabalik den AGAZik.

Auzapezak gehitu du aurten herriak arazo lodia izan duela, zaindari/animatzaileen kontratatzeko. Kontratatzeko zailtasun horiengatik mugatu behar dute irekitze garaia.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

54– AGAZ: Jantegi elkartearekin hitzarmena Haurtzaro Gazteria eta Hezkuntza zerbitzuari apairuen hornitzeko.

Aristizabal andereak oroitarazi du Jantegi elkarteak bazkari beroak eskaintzen dizkiola Haurtzaro Gazteria Hezkuntza zerbitzuari. 2022ko uztailaren 11 eta agorrilaren 12 artean 80 bazkari eguneko baloratu dira.

Bazkari horiek Jantegiren jangelan hartuko dituzte haurrek.

Bazkari bakoitza 3 €tan saltzen du, zergak barne.

Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea Jantegirekin hitzarmen horren izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

55 – AGAZ: Kanboko AGAZera jiten diren Kanbotik kanpoko haurrentzako finantzazio hitzarmenari emendakina.

Aristizabal andereak oroitarazi du Errobi lurralde eremuko herriek erabaki zutela herritik kanpo aisialdi zentrora joaten diren haurrentzako diru parte hartze baten adosteko.

Haur bakoitzeko eta egun bakoitzeko 10 €tan finkatu zen.

Ondorioz, Itsasu eta Luhusorentzako hitzarmenei emendakinak egin behar zaizkie.

Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea Kanboko AGAZera jiten diren Itsasu eta Luhusoko haurrentzako finantzazio hitzarmenaren izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

56 – AGAZ: Kanboko AGAZera jiten diren Kanbotik kanpoko haurrentzako finantzazio hitzarmena.

Aristizabal andereak zehaztu du, aitzineko puntuko hitzarmen kasik berdina dela, baina honakoan oraindik hitzarmenik ez duten Errobi Lurralde Eremuko beste lau herrirentzat dela.

Herri Biltzarrari proposatu dio Auzapezari baimena ematea Kanboko AGAZera jiten diren Haltsu, Jatsu, Larresoro eta Uztaritzeko haurrentzako finantzazio hitzarmenaren izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

57 – AGAZ: nerabeentzako 2022ko uztaileko oporren prezioak.

Aristizabal andereak azaldu du, aurten AGAZak nerabeak hartzea eskaintzen duela 2022ko uztailaren 12 eta 28 artean biltzarkide guztiei helarazi zitzaizen azalpen ohar sintetikoan aurkeztua denaren arabera.

Familien parte hartzea Familien Laguntza Kutzako familia koefizientearen arabera izanen da, eta 2 urte eta erdi eta 13 urte artekoen prezioetan oinarrituz, 2020ko martxoaren 2ko Herri Biltzarrak erabaki bezala. 7 €ko sari gehigarria eskatuko zaie soilik kanpoko jarduera batean parte hartzen dutenei. Aristizabal andereak zehaztu du prezioak iazkoak bezalakoak direla.

Jakinarazi du, aurten bi eguneko rafting eta via-ferrata egonaldia ezin izan dela antolatu, animatzaile eskasiarengatik. Legediak hamabi neraberentzako animatzaile bat behartzen duenez, bi talde osatu beharko ziren, jakinez animatzaileek ezin dutela eguneko 24 orenez lan egin. Ateraldia larrazkeneko oporretan proposatuko da.

Oraingoz, 12 gaztek izena eman dute, 14-15 adin tartean.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea herriak nerabe batzuk errefusatu dituen.

Aristizabal andereak ezetz.

Beyrie andereak Hirigoyen andereak egin galdera irakurri du: «Iaz, ber garaian, deitoratu genuen nerabeentzako oporretarako eskaintzen esku-orria frantses hutsean idatzia izatea. Erantzuna izan zitzaigun epeak laburregi zirela euskaraz argitaratzeko, eta ez zela inondik ere euskara baztertzeko borondaterik izan. Aintzat hartu genuen. Alta, eskuratu berri dugun aurtengo esku-orria berriz ere frantses hutsean da. Aurten ere epeak izanen direa aitzakia? Kolegioetan euskaraz eskolaratuak diren ehunka ikasleak ahanzi al dituzue? Ez dugu horrelakorik sinesten! Akatsa besterik ez dela espero dugu, eta agian laster zuzendua izanen dela».

Aristizabal andereak akatsa ez dela erantzun dio. Egia da iaz gaia aipatu zela eta oposizioko taldeak itzulpena egitea eskaini zuela.

Gogoratu du animatzaile eskasia orokortua dela eta azken sei hilabeteetan UFCVk eta aisialdi zentroko zuzendariak ahalegina egin dituztela animatzaileak kontratatzeke. Horregatik nerabeen egonaldia deuseztatua eta gibelatua izan da, eta ama-eskolako eta lehen mailako lekuak mugatu dira (96 lehen mailakoentzat eta 48 ama-eskolakoentzat).

Egoera horretan, nerabeen oporretako esku-orria AGAZa erabiltzen duten familiei baizik ez zaie zabaldu eta zuzendariaren galdeketari erantzunez beren emaila eman zuten beste berrogei familiei. Ondorioz, leku mugatuak zirela-eta, aurten ez da esku-orririk zabaldu kolegioetan.

Bistan da, Aristizabal andereak espero duela datorren urtean baldintza normalagoak izanen direla, eta kontratatzeke zailtasun gutxiago izaten bada esku-orri elebiduna egiten ahalko dela kolegioetan zabaldu eta interesaturik diren nerabe guztiak hartu ahal izateko.

Auzapezak gehitu du egia dela esku-orria emailaz eskuratu duten familien artean menturaz batzuek estimatuko zuketela euskaraz ukatea.

Beyrie andereak azalpena ulertu du, ez ordea oposizioko taldearen galdera eta erantzunaren arteko lotura. Berdin du esku-orria nori zuzendua den, herria aitzinamendu kontratu batean sartua da eta ondorioz barne eta kanpoko komunikazioa ele bitan egin behar du. Herria hizkuntza bat garatzeko urraspide batean da, eta haurrek kolegioan ez izanik ere hizkuntza horrekin bizitzeko eskubidea dute.

Auzapezak zehaztu du leku kopuru mugatua dela-eta, esku-orria soilik FaLK bidez egin herri galdeketari erantzun dioten familiei igorri zaiela. Nahiz eta horrek ez duen euskarazko itzulpenik ez izatea justifikatzen, segur da Beyrie andereak erraz atzemanen duela galdera eta erantzunaren arteko lotura.

Beyrie anderearen iritziz, FaLK haurtzaindegien euskalduntzeko dispositibo batean sartua da eta ez zuen inolako arazorik izanen dokumentua euskaraz eskuratu izan balu.

Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea zaindariak elebakarrak direnez.

Auzapezak ihardetsi dio iaz bi elebidunak zirela.

Hiriart-Urruty anderearen ustez gehiengoko taldeak zailtasunak ditu euskararen sustatzeko egin behar diren indarren ulertzeko. Azpimarratu du eztabaida hau ez zela gertatuko, baldin eta eskola-haurtzaro-gazteria batzordea bildu izan balitz 2022ko nerabeentzako proiektua aipatzeko. Zehaztu du iaz Hirigoyen andereak bere burua eskaini zuela itzulpena egiteko, eta aurten berdin egingen zuela eta epe biziki laburrean.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

58 – Biztanleriaren erroldatzea: herriko koordinatzaile baten izendatzea.

Auzapezak oroitarazi du Kanbo 2023ko urtarrilaren 19 eta otsailaren 18artean erroldatuak izanen diren herrietako bat izanen dela. Horretarako, inkestaren prestaketa eta galdeketa garaian, herriak Frantziako INSEE erakundearekin lotura eginen duen koordinatzaile bat izendatu behar du.

Patrick PEÑA jauna proposatu du koordinatzaile izateko, kontuan izanik 2007, 2012 eta 2017an jadanik funtzio hori bete zuela.

Halaber erroldatzearen ekintzetan, maila desberdinetan parte hartuko duten agenteak izendatu behar dira. Kontuan izanik harrerako langileek bilketa dokumentuak ematen ahal dizkiotela herriko koordinatzaileari eta herritarrak lagundu ditzaketela herriko etxean beren galdeketari erantzuten, Pantxika ETCHEGARAY, Emilie DARRITCHON eta Christine ASCARAIN errolda ekintzetako herriko langile izendatzea proposatu du.

Herri Biltzarrari eskatu dio herriko koordinatzailearen eta errolda ekintzetako herriko agenteen izendapena onartzea, gorago aipatu bezala, eta Auzapezari baimena ematea horretarako agiri oro izenpetzeko.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

59 – Hatu merkatua: araudiaren eguneratzea.

Cadepond-Larronde andereak jakinarazi du indarrean den araudia 2016ko martxoaren 1ekoa dela. Hatu merkatua pixkanaka bilakatu denez, merkatari gehiago badenez, araudia egokitu behar da. Aldaketa nagusiak zehaztu ditu: biltzarkideei igorri zaien araudi proiektuan gorriz agertzen dira.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

60– Txakurrak XBHAS: estatutuen eguneratzea.

Barbier jaunak oroitarazi du Txakurrak Sindikatuko Biltzarra 2022ko ekainaren 16ean bildu zela, eta bere estatutuak moldatzea erabaki zuela Aiherra herriaren bazkidetzaren ondotik.

Herri Biltzarrari eskatu dio Txakurrak XBHASaren estatutuen egokitzapena onartzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

61 – Langileria: enplegu sortzeak.

Auzapezak adierazi du, beharren bilakaera eta diagnostiko partekatuen emaitzak kontuan hartzeko, Arnagako eta herriko berdegune zerbitzuetarako baratzezain lanpostu bat sortzea proposatzen duela. Lurralde teknikari laguntzaile denbora osoko enplegu iraunkorra talde arduradunei irekia izan liteke, aurkeztuko diren profilen arabera. Zehaztu du gaur egungo Arnagako berdeguneen arduradunak, Jean-François Oxarango, herriko beste berdeguneen gainbegirada egingen duela. Ondorioz, ordezeko bat beharko du Arnagan.

Frantz Candas-ek bere lanpostua utzi duenez, 2022ko agorrilaren 1etik goiti denbora osoko Udaltzain nagusi postu iraunkorra sortzea proposatu du, Udaltzaingoaren Arduradun izateko. Egunerokoak erakusten du Kanbon bi udaltzain behar direla.

Aiçaguerre andereak ohartarazi du oposizioko taldeak oraindik ez duela ukan Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak egin Giza Baliabideei buruzko diagnostikoaren emaitzarik.

Auzapezak erantzun dio Kudeaketa Zentroko Garcia jaunari berriz eskatu diola bilkura egin zezala oposizioko taldearekin.

Zerbitzuetako Zuzendari Nagusiak zehaztu du Kudeaketa Zentroa saiatuko dela hilabete bukaera aitzin eta berantenik 2022ko irailean arrapostu ematera.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

62 – Langileria: langile bat Euskal Elkargoaren esku ezartzeko hitzarmena.

Auzapezak oroitarazi du herriko igerilekuaren kudeaketa Euskal Elkargoaren esku denetik herriak langileak ezartzen dituela elkargoaren esku igerilekuaren funtzionamendurako. Herriko berrantolaketaren ondotik eta langile batek erretreta hartu duenetik, hastapeneko hitzarmena zaharkitua gelditu da. Elkargoak hitzarmen berria helarazi dio herriari. Hitzarmen horretan herriak langile bakarra ezarriko du elkargoaren eskura, igerilekuaren mantenua egiteko.

Herri Biltzarrari proposatu dio herriak langile bat Elkargoaren esku ezartzeko hitzarmen berria onartzea.

Auzapezak bozkara eman du.

Aho batez onartua.

– Auzapezaren erabakien komunikazioa.

Frantziako Lurralde Kolektibitateen Kode Orokorreko L.2122-22 eta L.2122-23 artikuluen arabera, eta 2020ko ekainaren 11ko Herri Biltzarraren erabakia ikusirik, honakoen berri eman da:

- Hilerriko kontzesioen emateko eta berriz hartzeko erabakiak, 2022ko martxoaren 16tik 2022ko ekainaren 18ra:
 - 15 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 1

- 30 urteko kontzesioen erostea (lurrean): 1
 - 15 urteko kontzesioen erostea, haurren lorategia: 1
 - 30 urteko kontzesioen erostea (+ hilobitxoak): 1
 - 30 urteko kontzesioen eraberritzea (hilobiak): 4
- 2022ko apirilaren 7ko erabakia: M57 nomenklaturara pasatzearen ondorioz, herriko inbentariotik atera diren ibilgetuen zerrenda, 690 122,83 €ko zenbatekoarekin.
 - 2022ko apirilaren 19ko erabakia: 1, 5, 6 eta 8 atalei dagokienez, herriko eraikinen irisgarritasuna arauetara egokitze lanetarako prozedura egokituko deialdiaren moldaketaren onartzea, egikaritze denbora berean eta emendakin bidez.
 - 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 10 atalei dagokienez, Gurutze Gorriarentzako eraikinaren eraikitze lanetarako prozedura egokituko deialdiaren moldaketaren onartzea, egikaritze denbora berean eta emendakin bidez.
 - 2022ko maiatzaren 3ko erabakia: Arnaga etxea - kanpoko hormen margotzea, pergolen berroneratzea eta zerbitzuko eskailera kutzako lanak - 3 atalen esleipena zergaz kanpoko 290 504,02 €rentzat.
 - 2022ko ekainaren 2ko erabakia: Kanboko San Laurendi elizarako organo baten egitea eta bertan instalatzea – enpresa esleipenduna ORGELWERKSTATT da, zergaz kanpoko 341 950,00 €rentzat.
 - 2022ko ekainaren 2ko erabakia: Arnaga etxearen alde aldizkari, liburu, postal eta litografiaz osaturiko 1 000 €tan baloratutako dohain baten onartzea.
 - 2022ko ekainaren 2ko erabakia: Arnaga etxearen alde obra eta dokumentuz osaturiko 4 000 €tan baloratutako dohain baten onartzea.
 - 2022ko ekainaren 2ko erabakia: 300 €ko diru dohain baten onartzea.
 - 2022ko ekainaren 9ko erabakia: 9. atalari dagokionez, Gurutze Gorriarentzako lokal baten eraikitze prozedura egokituko deialdiaren moldaketaren onartzea, egikaritze denbora berean eta emendakin bidez.
 - 202ko ekainaren 15eko erabakia: 7. atalari dagokionez, herriko eraikinen irisgarritasuna arauetara egokitze lanetarako prozedura egokituko deialdiaren moldaketaren onartzea, egikaritze denbora berean eta emendakin bidez.

– Informazioak:

- Lassus jaunak biltzarkideei jakinarazi die herri aldizkariaren argitaratzea berantean dela. Opor garaiak direla-eta, aldizkaria ez da agorritik bukaera edo irail hasiera aitzin argitaratuko. Halere, zehaztu du aldizkaria osoki ele bitan izanen dela.
 - Aïçaguerre andereak adierazi du oposizioko taldearen orria garaiz aurkeztua izan dela, eta galdetu du ea posible den aldaketa batzuen egitea.
 - Lassus jaunak baietz eta azken bertsioa agorritikaren 15erako behar duela berantetik.

- Aldizkariaren maketazioari dagokionez, Auzapezak zehaztu du Herriak Sud-Ouest egunkariko Pierre Alexandre Carré-k egingen duela aldizkariaren maketazioa. Oposizioaren orriari dagokionez, Auzapezak gehitu du, beste aldizkari guzietan egiten den bezala, dagoeneko gehiengoak ere orri bat izanen duela.
- Hargain-Desperies andereak biltzarkideei jakinarazi die Iguskian etxe multzoko auzo-bilkura uztailaren 12an iraganen dela, 18etan, berotearengatik gibelatua izan eta gero.
 - Auzapezak zehaztu du informazioa garaiz eman zitzaiola Sud-Ouest egunkariari, baina zorigaitzez ez dutela garaiz argitaratu.
 - Aïçaguerre andereak ohartarazi du bilkura horren berririk ez dela herriko webgunean ez eta panel argituetan.
 - Auzapezak erantzun dio auzokoen gutun ontzi guzietan esku-orriak banatu direla.
 - Aïçaguerre andereak galdetu du ea auzo-bilkuren datak jada planifikatuak direnez.
 - Auzapezak erantzun dio ez dagoela egutegirik, eta bilkurak agintaldian zehar egiten direla aitzinatu ahala.
 - Hiriart-Urruty andereak nahiko luke informazio hori aurrerantzean panel argituetan ere argitaratzea.
- Auzapezka 2022ko aitzinamendu kontratuaren izenpetzea aipatu du.
- Beaulieu, zentroko suteari dagokionez, Auzapezak jakitera eman du hainbat bilkura egin direla ToLFEP-ekin, lehenik eta behin erakunde horrek baieztu zezan hondamendi horrentzako segurantz hartua zuela eta segurantzak herriaren interesak bermatzen zituela. Gainera, une oroko arrisku ordenantza hartu duela zehaztu du. Azkenik, biltzarkideei gai horri buruzko berriak emanen dizkiela segurtatu du, eta abisatu du administrazio izapide horiek luzeak izan daitezkeela.

– Bestelako gaiak:

- THP-ren kontra Administrazio Auzitegian ezarri diren helegiteen haritik, 2022ko ekainaren 28an iragan den audientzian, Auzapezak ez du gaia aipatzeko xederik, ez bada zehatzeko, gehiengoko kideek dakiten bezala, auzitegiak laster eman beharko lukeela bere erabakia.
- Hiriart-Urruty andereak Behereko Plazako ama-eskolaren hesteaz email bidez egin galderari erantzun dio halere, saio denboran aipatzeko xedea baitzuen. Biltzarkideei jakinarazi die ostiral goizean Paueko Akademia Ikuskaritzara joateko deitua dela. Gaia segitzen duten Aristizabal anderea eta Lassus jaunarekin joanen da bertara.
 Auzapezak Behereko Plazako ama-eskolaren hesteari buruzko mezuak ukan ditu, bere ustez oposizioko taldearen bitartez. Gaiaren historian sartu aitzin, zehaztu nahi izan du Covid-az geroztik, Frantziako Errepublikako Presidenteak erran zuen bezala, auzapezak eskumena baduela herrietako eskolen hestia ez onartzeko, eta hori da hain zuzen egingen duena beharrezkoa baldin bada. Aristizabal anderea eskertu nahi izan du, zeren agintaldi hastapenetik gaia segitu baitu, eta lehen kolegioko zuzendari izan denez, gaitasun handiarekin kudeatzen baitu.
 Hainbat bilkura izan dira Frantziako Hezkuntza Ministerioko bertako barrutiko Cuculou andere ikuskariarekin. Behereko Plazako ama-eskolako irakasleen iragarpenen arabera, aurtan (2021-2022)

33 ikasle ziren, eta heldu den urterako (2022-2023) 27 edo 29, herriak itxaropena ukan zezakeen irakasle lanpostuak eta bereziki bi ikasgelak mantentzeko.

Alta, 2022ko ikasturte sartzeko ama-eskolako ikasle kopurua gainbeheran da, lau ikasle besterik ez baitira aurreikusten. Behereko Plazako bi ikasgela elebazarrek izan emate galera izan dute, ikasleak Ikastolara eta Gainerako Kanboko eskola publiko elebidunera joan baitira.

Bizkitartean, auzoko gizarte lotura eskolatik haratago doa. Eskola desagertzen bada, plaza girotzen duten tabernak eta jatetxeak hesten badira, arrangura handia ukan dezakegu Kanboko bihotz historikoaren bilakaeraz. Horregatik Auzapezak egin ahalak eginen ditu Behereko Plazako eskola atxikitzeko.

Horretarako, Pestel akademia ikuskari jauna konbentzitu beharko du. Halere, diru kontuek beste irakurketa ekar lezakete... Ondorioz, gauzak nola bilakatzen diren ikusi artean, Auzapezak erabaki bat hartzea proposatzen du, 2022ko iraileko ikasturte hasieran Behereko Plazako bi irakasle lanpostuak eta bi ikasgelak mantentzeko.

Cuculou anderearen arabera, ikasle kopuruaren gainbehera 2023an segitzen bada, zaila izanen da eskema hori errepikatzea. Kopuruak ez badira emendatzen, Behereko Plazako ikasleak Kanboko bi eskola publikoetan banatu beharko dira. Hala balitz, eta herriak Behereko Plazako eskola historikoarekin duen atxikimendua dela-eta, Herri Biltzarrari proposatuko lioke Behereko Plazako eskola proiektu berezi batetara bideratzea, hots matematika laborategia egitea, non ikasle eta irakasleek matematikak lantzeko pedagogia berriak esperimentatuko lituzketen. Proiektua Kanboko eskola eta kolegioei irekia izango litzateke, egunka edo asteka erabiltzeko, ikasteko modu berriak garatzeko xedearekin. Inguruetako eskola eta kolegioei irekitzea ere aukera izan liteke epe laburrean. Cuculou anderearen iritziaz harago, proiektuak Behereko Plazan bizia atxikitzen lagunduko luke batetik, eta bestetik ikaskuntza helburuak ere betetzen lagunduko luke.

- Hiriart-Urruty andereak galdetu du nondik jin den ama-eskolaren hestearen informazioa. Gurasoek ostegunean jakin dute, hots ikasturteko azken egunean.
- Auzapezak ihardetsi dio ez dakiela. Deitoratu du ere beste informazio okerrak airean direla, hala nola «Auzapezak Behereko Plazako eskola hetsi nahi duela». Jadanik erran duen bezala, hainbat bilkura egin dira Cuculou anderearekin, horietako bat uztailaren 4ean. Behereko Plazako eta Kanboko Zuzendari guztiak elkartu dira Aristizabal anderea, Lassus jauna eta berarekin. Bilkura horretan, Cuculou andereak adierazi du zentzugabea litzatekeela pentsatzea ama-eskola mantendu ahal izatea lau ikaslerekin.
- Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea 2022ko iraileko sartzean Behereko Plazako bi irakasleek beren postua atxikiko duten.
- Auzapezak erantzun dio hori dela, hain zuzen, Cuculou anderearen proposamena, eta hori dela ere Herri Biltzarrari hartzea proposatuko dion erabakia.
- Hiriart-Urruty harritua dela erran du, zeren irakaslek entzun baitute kopuruaren arabera bietako batek joan beharko duela, eta bestalde, bat ere ez da izendatua izan oraindik.
- Auzapezak erantzun dio hori ez dela egia, herriak ahal duen guzia eginen duela bi postuen atxikitzeko.
- Aristizabal andereak gehitu du dena biziki fite joan dela 2022ko ikasturterako izen emateak ikustean, baina zehatu du eskola horrek bi urte daramatzala hesteko zorian. Orain, Pestel jaunarekin elkartu behar dute bi postuak atxikitzeko, eta hori da ere irakasleen nahia. Hala balitz, denbora gehiago ukanen genuke etorkizuna prestatzeko.

- Hiriart-Urruty andereak galdetu du ea posible den ama-eskolako bi ikasgelak CP ikasgeletara pasatzea.
- Aristizabal andereak baietz, baldin eta lau ikasleak ama-eskolako azken urtean izan balira. Alta, bat lehen urtean da, beste bat bigarreanean eta bi hirugarreanean.
- Hiriart-Urruty andereak adierazi du familiek bazekitela Damoklesen ezpata hor zutela, baina uste zuten 2022/2023rako oraindik atxiki zezaketela eskola zabalik, eta ondoko urtean hetsiko zela.
- Auzapezak erantzun dio Cuculou anderearen hitzetan uler dezakegula zaila izanen dela ama-eskola atxikitzea, baina berak ahal duen guzia eginen duela Pestel jaunarekin mintzatuz oraingo egora atxikitzeko, hots bi ikasgela eta bi irakasle.
- Hiriart-Urruty andereak galdetu du zer den matematika laborategi hori, hobetzeko kurtsoak ote diren.
- Aristizabal andereak ihardetsi dio halako egiturak jadanik existitzen direla Frantziako Dordogne eskualdean. Helburua da zientziak beste modu batera ikastea. Irakasle batek ikasgelak beren irakasle erreferenteekin errezibitzen ditu bertan matematikak eta zientziak lantzeko. Behereko Plazako Zuzendariak zientzia lizentzia badu, eta postu horrek interesatzen du, zeren titular izan aitzin anitz mugitu baita eta ibilbide horretan ikasleei irakasteko bide berriak esperimentatu baitzituen.
- Hiriart-Urruty andereak suposatzen du ikasleak Behereko Plazako eskolara mugituko direla orduan.
- Aristizabal andereak baietz. Hastapen batean, laborategia herriko eskoletako ikasleentzat litzateke, baina gero inguruko eskola, aisialdi gunea, zahar egoitza eta abarrekin lankidetzan aritu daiteke.
- Lassus jaunak gehitu nahi izan du Bergerac-en dagoen zientzien eskola publiko zabalari irekia dela, hitzarmen bidez. Kanbon, kuristak eta publiko zabala interesatua izan daiteke. Ikasgela hori bilakarazteak duen beste onura da, sekula ikasle eskasiagatik irakasle postuak desagertuko balira, halere hezkuntza gunea atxikiko genukeela garai hobeago batzuen beha egonik.
Lassus jaunak ama-eskolako lau ikasleak Kanboko eskoletara aldatzeko ideari segituz erran du argudio nagusiak hezkuntza kalitatea eta haurren interesa direla.
Gehiengoko taldeak zalantzak badituela gehitu du, badakitelako behin ama-eskola kendu-eta, zailago izanen dela kopuruen emendatzea.
- Bukatzeko, Auzapezaren iritziz egoera biziki korapilatsua eta minbera da. Berretsi du 2022an bi postuak eta bi ikasgelak atxikitzeko erabakia hartu behar dela. Akademia Ikuskariak ez badu onartzen, espero du Herri Biltzarra bere alde izanen duela, baita gurasoen eta irakasleen alde beren ezadostasuna adierazteko. Errepikatu du eskolaren hestea ez duela onartuko, baina ikasgelen hesteari dagokionez ez duela botererik.
Biltzarkide guziek bat egin dute Auzapezaren proposamenarekin.
- Hirigoyen andereak emazte eta gizonen arteko berdintasunari buruzko gaia heldu den saioko solasgaietan ezartzeko eskaerari dagokionez, Auzapezak hala eginen duela baieztatu du.

- Hiriart-Urruty andereak hirigintza batzordearen heldu den datari buruzko galderari, Magiz jaunak biltzarkideei jakinarazi die uztail bukaeran iraganen dela.
- Hiriart-Urruty andereak Administrazio Auzitegiko 2022ko ekainaren 28ko audientziaren informazioei dagokienez, Kanboko THPren kontra helegitea ezarri denetik, Auzapezak Hiriart-Urruty andereari eman dio hitza, zeren jadanik erran duen bezala bere taldeak ez baitu iruzkinik egingen epaiaren zain.
 - Hiriart-Urruty andereak biltzarkideei jakitera eman die 2022ko ekainaren 28an audientzia izan dela Paueko Administrazio Epaitegian, hiru instrukzio urte luzeren buruan. Ordezkarik publikoa oren eta erdiz mintzatu da, eta ondotik CADE, Jean-Paul Alaman, Nahi Dugun Herria, Lurzaindia eta Kanboko bi biztanleren abokatua. Hitzartzeak kalitate handikoak ziren. Uste du epaileek beren argudioak entzun dituztela eta epaia udan emanen dutela. Bistan da, sekula epaia ez bada oposizioko taldearen gustukoa, talde horrek helegitea ezarriko du.

Auzapezak Herri Biltzarraren saioa 21:00etan hetsi du.